



Andoni CANELLADA | FOKU

IBON ABAD IDAZLEA

Egunero zortzi ordu ematen ditu Donostiatik bueltaka, gidatzen duen autobusean jendea hara eta hona eramateko, baina Ibon Abadek maite duena irakurtzea eta idaztea da. Errelato laburrak idazten urteak eman ostean, eleberrira eman du jautzia «El akelarre de San Sebastián» lanarekin.

«Donostia postaletik atera nahi izan dut, heavy metala eta emozioa eman»

Oihane LARRETXEIA | DONOSTIA

Oso txikia zela hasi zen Ibon Abad (Bilbo, 1990) eleberririk irakurtzen, zuen adinerako akaso zailegiak ere baziren obrak irensten. «El Hobbit» eta «On Kixote Mantxakoa», adibidez. Gero heldu ziren bere eskutara Agatha Christie egilea eta Harry Potterren saga, besteak beste. Mesanotxea beti liburuz gainezka, irakurtzen zuen gose berberaz, ekin zion idazketari handik urte batzuetara. Errelato laburrak ziren hasieran, inorekin elkarbanatzeko asmorik gabe idatziak. Plazer hutsagatik. Bilbon jaioa baina Arabako Izarra herrian hezia, Donostian bizi da gaur egun Ibon Abad. «El akelarre de San Sebastián» (Circulo Rojo) du lehenengo eleberria.

«Idazketak errespetu handia ematen zidan, edonork ezin duela egin pentsatuta. Baita, aldi berean, egiten nuen hori erakusteko lotsa sentituta ere. Baina duela urte batzuk pausua ematera ausartu nintzen. Zergatik ez? 'El escritor tatuado' webgunean argitaratzen ditut lanak idazten noan neurrian», dio.

Eleberririk Galerna hirira garmatza, Donostiaren «B aldea» edo aurpegi iluna. «Donostia oso polita da, batzuetan politegia, eta horrekin apurtu nahi nuen, imajinatu nahi nuen inork bisitatu nahiko ez lukeen hiri bezala. Heavy metala sartu diot, arriskua, kondairak, muntroak, amesgaiztoak, sorginkeria... Ez beldurra pasatzeko, baizik emozioa emateko. Postaletik atera nahi nuen».

Aiara 12 urteko neskato itsua eta Dimitri autobus gidari errusiarrak dira eleberriko protagonistak. Antagonismoen jolasak maite ditu Abadek, eta aurreiritziak apurtzea ere gustuko du. Akzioa lehen orrialdeetatik hasten da. Gaztea hiriko estolda batetik behera erortzen da eta atzetik salto egiten du Dimitrik, neskatoa laguntzeko. Kalera irten nahi dutenean, ordea, ohar-tuko dira harrapatuta daudela, estolda itxi egin duela norbait. Galernan daude, izaki fantastikoz eta mitologikoz betetako hirian. «Irakurri nahiko nukeena idazten dut. Liburu baten lehen 100 orrietan ezer gertatu ez eta deskribapenak soilik

IRUDIMENA

«Autobusa jendez gainezka eraman arren, maiz oso bakarrik sentitzen naiz gidariaren lekuan. Hortxe askatzen zait irudimena, neurririk gabe»

Lara Izagirre,
directora de «Nora»:
«La experiencia de
"Zikloa" en París fue
inolvidable»

Kerobia bizirik "Hilak"
diskoa taularatzen
igandean

naiz:

daudenean... liburua oso ona izan daiteke, baina niri hasieratik egurra gustatzen zait. Eta hemen seigarren martxa sartu dut, bidaia hau 'kañeroa' da».

Abadek kontatu duenez, ideia «Gautxori» autobus zerbitzuan lanean ari zela sortu zitzaion. «Gauetan nire irudimena piztu egiten da, eta Maria Cristinako zubiko faroletan dragoi txikiak daudela ohartu nintzen. Gero kraken bat irudikatu nuen Kontxako badian eta...».

Aiara eta Dimitrik hamaika zailtasun gainditu beharko dituzte Galernatik ihes egin eta Donostiara itzultzeko. Errealitate paralelo baten gisa, hiria ezagutzen duenak errekonozituko ditu eraikinak, hondartzak, kaleak... baina beste dimentsio batek, ezezaguna.

Autoedizioaren bidea hartu du Abadek eta Circulo Rojo argitaletzekoen laguntza izan du zuzenketa eta inprimatze lanean. Lehen fruituak jaso bitartean, baditu beste bi eleberririk mar txan eta hirugarren libur bat amaituta. Fantasia utzi gabe, thrillerrean murgildu da autobusak gidatzen dituen idazlea.

El más culpable



Josu MONTERO
Escritor y crítico literario

Qué corazón más desesperado y lleno de amargura. Cuánto caos, cuánta ansia de belleza y de verdad atravesada por la rabia y por una pulsión fatal. ¿Cómo se lleva adelante la vida siendo homosexual y creyente, marxista y libertario, idealista y agónicamente nihilista, didáctico y brutal? Sus seis tragedias –“Fabulación”, “Píladre”, “Pocilga”, “Orgía”, “Bestia de estilo” y “Calderón”– son un tumor en el cuerpo del teatro; al teatro burgués opone ese rito político que es el Teatro de la Palabra: “Poesía oral convertida en rito por la presencia física de los actores”. Un teatro de abismos. Frente al cine de prosa buscó un cine de poesía: “Edipo”, “Medea”, “Teorema”, “El Evangelio...” o “Saló”. La poesía violenta de un vocacional Enemigo del Pueblo cuyas blasfemias son secretes plegarias. Y viceversa. Como en sus novelas. Como en su poesía. Testigo incómodo de la demolición controlada de la Cultura Popular y de su sustitución por otra llamada de la misma forma pero que no es sino la cultura capitalista del consumo: un cuerpo vaciado y relleno de quincalla. Humillado y ofendido se vengó tal vez corrompiendo para nosotros sus propios sueños. Menos leído y más actual que nunca, se cumplen cien años de su nacimiento y cuarenta y siete de su aún enigmático asesinato. En los dos versos que componen “A mí”, Pier Paolo Pasolini escribió: «En este mundo culpable, que sólo compra y desprecia, / yo soy el más culpable, reseco de amargura».